" Mortu'ren auzia.

" Mortu" ala " Portu" erran bear
ete litzake?

Nire eritziz, ez mortu, ez portu,
eremu baizik. Bakartade edo desier-
tua adiazoteko Pirineos andiko ser-
molariak ago batez eremu itza era-
bilten daue. Azkue Jaunak be itz
au berberau dakar. Euskel-itz jator
eta bereziak ditugun bitartean zertako
jo arrotz itzetara? Agorrilla daukogun
bitartean, zertako erabilli Agostua?

Au ta guzti be, portu edo mortu au-
keratu bearrean kausituko bagiñakez,
uste det portu baño mortu ariñago
artu bear geunkela, portu izena ~~ete~~-
Españoletiko "puerto" izenetik datorrelako,
eta Joanes Batistaren egolekua ez baizan
portua edo mendi andi biren ago edo
sarrera, ~~eremua~~, ~~bakartadea~~, Españo-
lak mendiko portu itzakin adi-azo oi-
daben bezela, eremua, bakartadea,
mortua edo danak ilda ba'legoz lez, iñor
bizi etzan egoitza baño.

Ziburutarra